

## **Etxebizitza Eskubidea: Asmoetatik ekintzetara baliabideen bitartez.**

Gaur egun etxebizitzarako sarbidea euskal gizartearen arazo larrienetakoa dugu. *Etxebizitza Guztiontzat!* Plataformak sarritan salatu du Etxebizitza Eskubidea urratuta dagoela Euskal Herrian eta horren bermatzea instituzioen ardura dela. Argi dago eskubide honen betetzean zenbait faktore biltzea beharrezkoa dela: **borondate politikoa, baliabideak, ekintzak**. Hirukote banaezin honetan elementu guztiak dira nahitaezkoak. Instituzioek, garai honetan, horietako bat dute eztabaidagai: **aurrekontuak** (baliabideak, hots).

Nafarroa eta EAeko gobernuek aurrekontu proiektuak aurkeztu dituzte. Hauen azterketa egin ondoren hurrengo galdera sortzen zaigu: ¿zer baliabide maila ari dira etxebizitzan inbertitzen 2006 urterako? EAEn Etxebizitza Sailerako aurreikusten den gastua 180 milioi eurokoa da eta Nafarroako Foru Erkidegoan 67,7koa izan da. Honek esan nahi du gobernuek lurralde bakoitzaren BPGaren %0,3 eta %0,4ko esfortzua egiten ari direla. Honekin batera, kontuan hartu behar dugu zenbaki hauek aurrekontu osoaren %2,4 eta %2,2ko portzentaiak ekartzen dituztela. Beraz, ondorio argia ateratzen dugu: **erabilitako baliabideak ez zaizkio arazoari egokitzen**.

Bestetik, gastu hau beste oinarrizko eskubide batzuen betetzerako erabiltzen denarekin alderatu dezakegu. Hauen gastuek, nahiz eta behar bezala bermatuta ez egon, aurrekontuetako zati nabarmena hartzen dute. Osasunari dagokionez, gastu hau aurrekontuaren %33a da EAEn eta %23,3a Nafarroan. Hezkuntzaren kasuan, bestalde, ehuneko hauek 27 eta 16,3ekoak dira. Argi dago etxebizitza maila bereko oinarrizko beharra dela, baina **aurrekontuetan lehentasun moduan islatzen ez dela agerian gelditzen da**. Hala ere bestelako gastuek, militarrek adibidez, lehentasun handiagoa omen dute. Izan ere Euskadik eta Nafarroak kupoaren bitartez 1.825,4 milioi euro transferituko dizkiote Espainiar estatuari, hau da, Hego Euskal Herriko BPGaren %2,4, dirutza horren zati bat gastu militarretan xahutuko delarik.

Arlo publikotik etxebizitzarako sarbidea pertsona guztiei bermatzea ezinezkoa dela maiz esaten zaigu, behar besteko dirurik ez dagoelako. Hala ere, datuek gabezia oinarrizko behar hau asetzerako baliabide maila handiagoa inbertitzeko borondaterik ezan datzala garbi uzten digute.

Baina etxebizitzaren arazoaren ardura ez da gobernu autonomoena bakarrik. Instituzio guztien parte hartzea eta politiken aldaketa beharrezkoa da. Udalei dagokienez, ardura nabaria da: baliabide ekonomikorik ezaren aitzakia erabiliz, asko pisuen garestitze prozesuaren beste eragile bihurtzen dira (besteak beste, lurra publikoaren salmentaren bidez). **Maila guztietako espekulazioarekin amaitzen lortzen ez dugun bitartean, ekimen publikoa bera etxebizitzarako sarbidean beste eragozpen bat izango da** (paradoxa izugarria).

Honi aurrekontuen bitartezko beste bidegabekeria gehitu behar zaio. Hots, egun **etxebizitzako gastu fiskala gastu zuzenaren bikoitza da**. Zentzu honetan, desgrabazioek 512 milioi euro suposatzen dituzte EAEn eta 127 Nafarroan. Hau da, babestutako etxebizitzaren sustapenaren eta bestelako programen bitartez merkatuan eskuartzera zuzendutako euro bakoitzarengatik, bi euro gastatzen dira dedukzio fiskaletan. Eta hau bidegabeta dela diogu bi arrazoiengatik: batetik, honek guztien patriketatik esku pribatuetarako diru transferentzia suposatzen duelako (hobe diru hau etxebizitzan zuzen eskuartzeko erabiliko balitz); bestetik, ekimen honek ondorio argia duelako etxeen garestitzean.

Etxebizitza Guztiontzat! Plataforman **alokairu sozialaren** aldeko apustua egiten dugu, biztanle guztiei etxebizitza duina bermatu ahal izateko. Alokairu parke publikoa, eta honen errenta maizterren diru sarreraren arabera kalkulatu litzateke. Honetarako dirua behar da – hala esaten dute – eta ez dago. Ez da egongo, etxebizitza aurrekontuetan lehentasuna ez den bitartean, errealitatea eraldatzeko behar besteko baliabideak erabiltzeko borondate politikorik ez dagoen bitartean.

## **Derecho a la Vivienda: De intenciones a hechos se llega con recursos.**

Hoy en día el acceso a la vivienda es uno de los principales problemas de la sociedad vasca. Desde la Plataforma Etxebizitza Guztiontzat! hemos denunciado en diversas ocasiones que el Derecho a la Vivienda está siendo vulnerado en Euskal Herria y que son las instituciones las responsables de garantizarlo. Sin duda, es necesario que confluyan varios factores para que este derecho se haga efectivo: **voluntad política, recursos, hechos**. En este inseparable trinomio todos los elementos son imprescindibles y en esta época del año, las instituciones centran sus debates en uno de ellos: los presupuestos (es decir, recursos).

Los Gobiernos autónomos de Navarra y C.A.P.V. han presentado sus proyectos presupuestarios. Analizándolos, nos hacemos la siguiente pregunta: ¿qué recursos están invirtiendo en Vivienda para el 2006?. En la C.A.P.V., el gasto previsto para el departamento de Vivienda es de 180 millones de euros, mientras que en la Comunidad Foral Navarra esta cifra ha sido de 67,7 millones. Esto quiere decir que los gobiernos están realizando un esfuerzo equivalente al 0,3% y 0,4% respectivamente, sobre el P.I.B. de cada territorio. Si, a esto le sumamos que estas cifras suponen solamente un 2,4% y un 2,2% de los presupuestos totales, llegamos a una conclusión clara: **los recursos que se destinan no están a la altura del problema**.

Por otro lado, podemos comparar este gasto con el que se destina a la satisfacción de otros derechos básicos, que a pesar de no estar suficientemente garantizados, sus gastos ocupan un porcentaje importante de los presupuestos. En el caso de Sanidad, el gasto supone un 33% del presupuesto de la C.A.P.V. y el 23,3% de la Comunidad Foral Navarra. Por su parte, en Educación estos porcentajes son del 27 y 16,3, respectivamente. Sin duda, la Vivienda supone una necesidad básica del mismo nivel, pero **es evidente que no se refleja como una prioridad en los presupuestos**. Sin embargo parece que otro tipo de gastos, como los militares, sí son más prioritarios. De hecho Euskadi y Navarra han destinado a través del cupo 1.825,4 millones de euros, el 2,4% del P.I.B de Hego Euskal Herria, buena parte de ellos para gastos militares

En muchas ocasiones se argumenta desde lo público que es imposible garantizar el acceso a la vivienda para todas las personas, porque no hay dinero para ello. Sin embargo, los datos nos revelan que en la actualidad lo que no hay es voluntad de dedicar un volumen mayor de recursos para satisfacer esta necesidad básica.

El problema de la vivienda no es, sin embargo, competencia exclusiva de los gobiernos autónomos. Es necesario que todas las instituciones se impliquen y reorienten sus políticas. En el caso de los ayuntamientos, la responsabilidad es clara: utilizando la excusa de la insuficiencia de recursos económicos, muchos se convierten en un eslabón más en la cadena del encarecimiento de los pisos (por ejemplo, mediante la venta de suelo público). Mientras no se consiga acabar con la especulación a todos los niveles, **la propia actividad pública estará poniéndonos más difícil el acceso a la vivienda** (dramática paradoja).

A todo ello hemos de añadir otra injusticia de carácter presupuestario. Y es que actualmente **el gasto fiscal en vivienda dobla el gasto directo**. En este sentido, las desgravaciones suponen 512 millones de euros en la Comunidad Autónoma Vasca y 127 en la Navarra. Es decir, por cada euro que las administraciones dedican a incidir directamente en el mercado de la vivienda, mediante la promoción pública de vivienda y otros programas, se dedican más de dos euros a deducciones fiscales. Y decimos que esto es una injusticia, por dos razones: 1º, porque esto supone una transferencia de dinero público del bolsillo de todas a manos privadas (dinero que se podría emplear mejor en la actuación directa en vivienda); 2º, porque esta actuación tiene una consecuencia clara en el encarecimiento de la vivienda.

En la Plataforma Etxebizitza Guztiontzat! apostamos por el **alquiler social** como una vía factible para asegurar una vivienda digna a toda la población. Un parque público de vivienda en alquiler, cuya renta se calcularía en función de los ingresos del inquilino. Para esto – dicen – hace falta dinero, y no lo hay. Ni lo habrá, mientras la vivienda siga sin ser una prioridad en los presupuestos, mientras no haya una verdadera voluntad política de dedicar los recursos necesarios para transformar los hechos.

***Plataforma Etxebizitza Guztiontzat!-Vivienda para todas y todos.***